

## SKETCHING SCIENCE 2021 LEHIAKETAREN OINARRIAK

### GAIA

Gai nagusitzat zientzia edo haren adarretako batekin lotura duten lanak onartuko dira, eta bioteknologiarekin zerikusia badute positiboki puntuatuko dira. Obraren edukiak publiko orokorrari zuzenduta egon beharko du.

### PARTE-HARTZAILEAK

Lehiaketa honetan nahi duten pertsona guztiek parte hartu ahal izango dute, profesional zein afizionatuak izan, baldin eta beren lanak hemen ezarritako oinarrietara egokitzen badira.

### ONARPENA ETA FORMATUAK

- Lanak lehiaketara aurkezten dituen egilearen jabetzakoak izango dira.
- Lehiakide bakoitzak obra bakar bat aurkeztu ahal izango du, originala eta argitaragabea. Ez da onartuko beste lehiaketa batzuetan aurkeztutako edo saritutako lanik.
- Lanak, baita izenburua eta deskribapen laburra ere, euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez egin ahal izango dira.
- Lanak euskarri digitalean bidali beharko dira (.jpg, .png edo .pdf formatuak) [eusbiotek@gmail.com](mailto:eusbiotek@gmail.com) helbide elektronikora, "SKETCHING SCIENCE" gaiarekin, datu hauekin:
  - Obraren izenburua
  - Obra edo testu osagarriaren deskribapen laburra
  - Egilea (izen-abizenak)
  - Izenordea (aukerakoa)
  - Telefono mugikorra
  - Harremanetarako helbide elektronikoa
  - Izena zare sozialetan (Twitter, Facebook, Instagram eta LinkedIn), izenez gero (Autazkoa).
- Jaso izanaren agiria bidaliko da.
- Obra umorezko bineta bat, komiki bat, marrazki bat, erretratu bat, eskultura bat... izan daiteke.
- Teknika librea izango da eta parte-hartzaile bakoitzak bere materiala eduki beharko du.
- Tamaina librea izango da.

## SKETCHING SCIENCE 2021 LEHIAKETAREN OINARRIAK

### EPEA

Lanak entregatzeko epea apirilaren 5ean hasiko da, 00:00etan, eta 2021eko maiatzaren 5an amaituko da, 23:59etan.

### EPAIMAHAIA

Epaimahaia independentea izango da eta eusBIOTEKeko Zuzendaritza Batzordeak aukeratutako 3 kidek osatuko dute.

### EBALUAZIOA

Epaile bakoitzeko 1etik 10era bitarteko puntuazioarekin baloratuko dira obraren alderdi hauek: originaltasuna, inpaktu maila, arte-dotea, gaurkotasuna, zorroztasun zientifikoa, diseinua eta bioteknologiarekiko harremana. Azken balorazioa epaile bakoitzak alderdi bakoitzean lortutako puntuazioaren batura izango da. Berdinketa gertatuz gero, "Bioteknologiarekiko lotura" eta "zorroztasun Zientifikoa" atalen baturan puntuazio handiena duen lanak irabaziko du.

### SARIAK


Irabazleak 50 euroko opari txartela jasoko du, *El Corte Inglés*-ekoa edo *Elkar* liburudendakoa, irabazlearen aukeran.

### ERAKUSKETA

Aurkeztutako lanak eusbiOTEKen sare sozialetan eta haren webgunean argitaratu ahal izango dira.

Marrazkiak egiletza adieraziz argitaratuko dira, eta eusBIOTEKek bere logoa obren gainean jartzeko eskubidea izango du, haien edukia ahalik eta gutxien kaltetzen den lekuetan.

Adibidea:



### SARI BANAKETA

Irabazlearekin harremanetan jarriko da posta elektronikoz 2021eko ekainaren 1ean.

## SKETCHING SCIENCE 2021 LEHIAKETAREN OINARRIAK

### **OBRAK**

Obrak eusbiOTEKen esku geratzen dira, eta hark beretzat gordetzen ditu obra horien gaineko eskubide guztiak, bai eta obra horiek argitaratzeko aukera ere, egileari aipamena eginez eta, betiere, Jabetza Intelektualaren Legeak xedatzen duena betez.

### **OHARRAK**

Parte-hartzaileek beren gain hartzen dute aurkeztutako obren egiletza eta originaltasuna, bai eta obra horien gaineko hirugarrenen eskubiderik ez egotea eta irudi-eskubideengatik egin daitekeen edozein erreklamazio ere. Erakundeak zorrotz zainduko du jasotako obrak manipulatzeko, baina ez du erantzukizunik izango lehiaketan zehar, erakusketan edo lanak itzultzean izandako galera, haustura, lapurreta edo kalteengatik.

eusBIOTEKek beretzat gordetzen du lehiaketa ezereztu edo esleitu gabe deklaratzeko eskubidea, baldin eta lehiaketa garatzeko behar beste parte-hartzaile ez badago; lanak aurkezteko epea luzatzeko eskubidea, bai eta, bidezko arrazoirik izanez gero, aldatzeko, eteteko edo ezerezteko eskubidea ere.

Oinarri hauetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez duten obra guztiak automatikoki deskalifikatuta geratuko dira.

Lehiaketa honetan parte hartze hutsak lehiaketa arautzen duten oinarriak erabat onartzea dakar. Oinarri hauetan aurreikusi gabeko guztian, eusBIOTEK Bioteknologiaren Euskal Elkarteak bidezkoa dena ebatziko du.

Edozein kontsulta egiteko, helbide honetara jo dezakezu:

[eusbiotek@gmail.com](mailto:eusbiotek@gmail.com)